



Arrasate

P R E S S

2001.eko
martxoaren 30a
535. zenb.



Udaberrian, gorputz berria



EDERTASUNA: EGUNEROKO ARDURAREN ETA NORBERAREN ONGIZATEAREN EMAITZA



LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Bixente Ferrer, 1
Tel./Faxa: 943 79 52 17

Gorputz eta aurpegi tratamenduak

OSTAR	Elektroestimulazioa
Ultrasoinuak	Hidratazioa
Presoterapia	Erreafirmatzailea

Estresaren aurkako tratamenduak

Masaje erlaxagarria	Hidromasaje
Mar Muertoko	bainuontzia
lokatzak	Enplastoak
Presoterapia	Erreafirmatzailea

Beste zerbitzu batzuk

Makillaje iraunkorra	Dieta
Depilazioa	pertsonalizatuak
laserrarekin	Barizeak
Liposukzioa	Presoterapia

Solariuma: Zutikakoa eta etzandakoa (dutzarekin)
Bonoa: 10 saio + 1 doan = 9.000 pta.


BRINKOLA

Billegia eta lantegia: Legazpi Bidea, z/g Erakusketa: Artiz kalea (Orbegozo parean) Tel.: 943 72 64 53 ZUMARRAGA

PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHO ISOLATZAILEAK ZERBITZUA-KALITATEA-BERMEA

- PVC eta aluminiozko leihoetan, aukerarik zabalena salneurririk onenean, eta BILTOKIA ETA LANTEGIAREN JABETZA GUREAK IZANIK, BITARTEKARI BARIK.
- Kolore guztiak ditugu: sapel, haritz, kaoba, pinu eta abar.
- Gure salneurrien (instalazioa barne) eta leiho zuri eta egurrezko imitazioen alde bakarreko adibideak.

Aluminio zuria 96.000 pezeta	Alum. zuria 129.000 pezeta	Alum. zuria 117.000 pezeta	Alum. zuria 79.000 pezeta	Alum. zuria 110.000 pezeta	Alum. zuria 92.000 pezeta
PVC zuria 96.000 pezeta	PVC zuria 129.000 pezeta	PVC zuria 117.000 pezeta	PVC zuria 79.000 pezeta	PVC zuria 110.000 pezeta	PVC zuria 92.000 pezeta
Egurrezko imitazioa 110.000 pezeta	Egurrezko imit. 140.000 pezeta	Egurrezko imit. 130.000 pezeta	Egurrezko imit. 87.000 pezeta	Egurrezko imit. 122.000 pezeta	Egurrezko imit. 107.000 pezeta



Aldakorra

- Aluminiozko pertsiana eta kaxoi termikoa
- Kamera bikoitzeko beira
- Barneko jamba
- Junkiloa molduran
- Egurrezko kaxoi zaharren berrizketa

Konpromiso bariko aurrekontuak
Zure neurriko finantzaketa
Gure udaberriko eskaintza aprobetxatu
Leihoa 20 egunean jarriko dugu.



urteurrenak

Ikerketa sozio ekonomikoak

■ 59. zenb.
(1990-04-06)

Udalak lau ikerketa sozio-ekonomiko bultzatu zituen. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren alorrean emaitzak ez ziren baikorrak izan, jende gutxi eta adinduak zebiltzan eta. Turismo eta ostalaritzari dagokionez, zera ondorioztatu zuten: kooperatibek erakarrirako bisitariei eskaintza handitu beharra. Bestalde, industria eta birkontratazioa eta irakaskuntza ez arautuaren arloak ere landu ziren.

Jose Letonaren ondarea

■ 59. zenb.
(1990-04-06)

Gobernu batzordeak onartu egin zuen Jose Letonaren ondarearen gainean Euskaltzaindiak egindako eskaria, historialariaren dokumentazioa gehiago zabal zedin. Horrela, liburu eta argazkiak familiak eskuratu zituen. Agiritegia, berriz, Bilboko Azkue liburutegian katalogatu eta Jokin Zaitegi liburutegira bueltatuko zuten. Eta gerraren paperak kopia eta Monterronera bueltatu beharko zituzten.

Iñigo Irasuegi askatu zuten

■ 59. zenb.
(1990-04-06)



Iñigo Irasuegi arrasatearra askatu zuten, otsailaren 26an intsumiso izanagatik atxilotu eta orduz gero Alcalako

kartzelan egon ondoren. Aurreko astean, Iñigok gose greba egin zuen intsumisoen egoera salatzeko, eta ondoren Epaitegi Militarrek berau askatzea erabaki zuen. Dena dela, gerra kontseiluaren zain egon behar izan zuen, eta 15 egunean behin Oñatiko Guardia Zibilaren kuartelean aurkeztu.

besteek esana



Bere garaian, Iokin Zaitegik txaloak baino mespresua ez dut esango, baina urruntasuna izan zuen euskaltzaleen aldetik. Baina, esan beharra dago *Euzko Gogoa*, besteak beste, nire ustez inoiz egon den aldizkaririk zabalena eta demokratikoena izan dela, han edonork kolaboratu izan zuen. Berak zeukan diru apurra aldizkarian inbertitu zuen. Jokinek osasuna horrela hondatu zuen. Gainera, *Euzko Gogoa* baten zera aipatzen du: Amerikan egindako aldizkaria izan arren, bertako euskaldunek ez zutela batere laguntzen, alegia, ez ziotela kuotarik ordaintzen... kexu zen horregatik. Nik uste dut bakardade handian egin zuela lan, eta dudarik gabe, kixote bat izan zen».

Koldo Izagirre

IDAZLEA

Arrasate irratia

(2001eko martxoaren 30a)

aurkibidea

- Lehen begiratua 3
- Txutxumutxuak 10/13
- Kulturaren txokoa . . . 23/24
- Asteko hitzorduak 4
- Asteko gaia 14/16
- Uhinetan barrena 25
- Inkesta 5
- Zaldibar areto futbola . . . 19
- Foto zaharra 26
- Astearen errepasoa 6
- Kirolak jokoan 20/21
- Orain eta hemen 7/8



ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otorora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran. **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publikitateak:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzaileak:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gáinzarain, Ane Berebizbar (Tel.: 943 71 23 90). **Disenatzaileak:** Alex Azkarate. **Astburuetako herriemakilerak:** Lorea Aguiriano. **Banaketaren arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



ZERBITZUAK

Eritxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Iguatorialdea 943 71 26 91
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
 Gurutze Gorria 943 76 55 76
 DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11

Astelehenetik
 Barikura 14:00etatik 08:30era
 Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
 asteburu eta
 jai egunetan egun osoa
 Arrasate

Astelehenetik
 Barikura 08:00etatik 17:00etara
 Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara

• Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espzialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 52 52
 • Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburategia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jai egun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

hauteskunde zerrendak

Maiatzaren 13an egingo diren Legebiltzar-
 rrerako hauteskundeak direla eta, zentsua-
 ren zerrenda berriak ikusteko aukera dago.
 Lehenago agertu bazara ere, egiaztatu egin

beharko zenuke oraingoan ere agertzen
 zaren edo ez. Apirilaren 2a arte, astelehe-
 netik egubakoitzera, udaletxean.

Jon Agirreren alde

Martxoaren 30ean, Jon Agirre presoari elkar-
 tasuna adierazteko, Huelvara irteera egin-
 go dute Arrasateko eta Aramaioko Amnis-

taren Aldeko Batzordeek. Autobusa 19:00ak
 eta 19:30ak bitartean irtengo da, eta ize-
 nimatea Iratin egingo da.

1951n jaiok

Martxoaren 31n itxiko da 1951n jaiotakoen
 ospakizunerako izena emateko epea. 5.000
 pezeta sartu behar dira Kutxan edo Euska-

diko Kutxan, ospakizun horretarako zabal-
 du den kontu korrontean.

1940ko emakumeak

1940an jaiotako emakumeek ospakizuna
 egingo dute martxoaren 31n. San Juan

Bataiatzailearen elizan meza izango dute
 13:00etan, eta gero, bazkaria batzokian.

pirinioetara irteera

Pirinioetara irteera antolatuta du Besaidek, api-
 rilerako. Izena ematea martxoaren 30ean

edo apirilaren 2an egin beharko da, 19:00eta-
 tik 20:00etara, Besaideren egoitzan.

ateak zabalik institutoan

Arrasate-Aretxabaleta institutuak, bere eskain-
 tzaren gaineko informazioa emateko eta erai-

kina erakusteko, atek zabalduko ditu api-
 rilaren 4an, 18:00etan.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 30

- Corcuera, Aranbarri

Zapatua, 31

- Irizar, Erguin

Domeka, 1

- Amezua, Santa Marina

Astelehena, 2

- Zabala, Zarugalde

Martitzena, 3

- Ruiz, Magdalena

Eguaztena, 4

- Morales, Araba

Eguena, 5

- Azkoaga, Ferrerías

**TOLDOS
LECE C/B**

**Eguzkiari
aurre egiten
diogu inork
baino hobeto**

Kataide Industrialdea, 14
 Musakola • ARRASATE
 Tel.: 943 79 23 83
 Faxe: 943 77 04 45

Zer egingo zenuke Arrasateko pisuak merkatzeko?

Denontzat plataformak etxebizitzan arazoa saihesteko mozioa aurkeztuko du datorren eguenean



Francisco Davila
(Langilea)

Oso galdera zaila da. Irtenbidea izan daiteke babes ofizialeko etxe gehiago egitea.



Cristina Calvo
(Langilea)

Guk diru gehiago irabazi beharko genuke.



Antonia Liebana Bueno
(Etxekoandrea)

Itxita dauden pisuak gehiago zainduko nituzke, eta lurra ere merkatu egin beharko litzateke.



Esperanza Sanchez
(Etxekoandrea)

Udalak lurra merkatu beharko luke.



Patxi Manzana
(Erretiratua)

Pisu gehiago eraikiko nituzke.



Eugenia Pablos
(Etxekoandrea)

Gustatuko litzaidake erantzun on bat izatea. Argi dago lana dagoenean pisuek gora egiten dutela. Laguntza gehiago eman beharko lituzkete.



Joxe Uribarren
(Langilea)

Diputazioak eta udalak lurra merkatu egin beharko lituzkete. Horrez gain, ikasleei laguntzeko errentak ere behera egin beharko luke.



Patxi Vicente
(Langilea)

Galdera ona. Zergak gutxitu beharko lituzkete; lurra merkatzea ere beste irtenbide bat izango litzateke.

BODEGOI TABERNA

Apirilaren 1ean, domekan, 12-etatik aurrera

Zatoz Bodegoi berria ezagutzera!

Eta pintxo ederrak dastatzera!

Portasol kalea. ARETXABALETA

Tel.: 943 79 20 45 **Inaugurazioa!!**

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

USTEAK USTE

Etxebizitza eskubidea

Bazterketa sozialaren aurkako plataformak, Denontzat-ek, etxebizitza eskubidearen alde ekimenak bultzatzeko mozio bat sartuko du datorren osteguneko osoko bilkuran. Plataformak hainbat helburu ditu esku artean, baina etxebizitzaren gaiari lehentasuna eman nahi izan dio. Hiri plangintza orokorraren eraikuntzan hiritarrek parte hartze handiagoa izatea eta gazteek etxebizitzarako aukera izan dezaten plangintza berezia lantzea nabarmentu dute, besteak beste.

Izan ere, ezagun da herrian gertatzen ari dena, etxebizitzaren salneurria zerutik baitabil. Batetik, bertan dagoen egoera ekonomikoa baikorrak zenbaitzuei pisu garestiak ordaindu ahal izateko aukera ematen die. Eta bestetik, Mondragon Unibertsitateak erakartzen duen ikasle multzoak eskaria izugarri hazten du. Horrez gain, eta udalak babes ofizialeko etxeak egiteko ekimen garrantzitsua martxan jarri badu ere, beste ekimen batzuen artean, jabetza baino, etxebizitzaren alokairuaren aldeko apustua egitea ez legoke gaizki.

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ Travelair

Eroski Bidaiak enpresak Travel Air izeneko taldea sortu du, enpresei zerbitzua emateko. Hau da, talde berriaren eskaintzak ez dira herritarrengana iritsiko, bakarrik enpresetara, eta etorkizunean, 500 bat bezero izan ditzakeela uste dute arduradunek.

Bidaien zerbitzua hobetzea eta indartzea da MCCren bidai agentziaren helburua.

■ Ikastetxeendako dirulaguntzak

Aurten, Arrasateko ikastetxeek 25 milioi pezeta jaso dituzte euren jarduerara eta proiektuak hobetzeko. Ikastetxe bakoitzaren ekintzak, proiektuak eta zerbitzuak

diruz laguntzea da ekimen horren helburua. Herriko udalak eman ditu dirulaguntzak.

■ Maalan aldaketak

Udaleko zerbitzu teknikoek egindako proposamenaren arabera, Maalako biribilaren ondoan dagoen irla-txoa kendu egingo dute, eta toki berean dagoen erdibil-tzaileari ere zati bat moztuko diote. Izan ere, Maala kalera sartzeko eta irteteko arazo asko izaten dituzte autoek eta, hain justu, erdigunea oinezkoendako egokitze lanak bukatu eta gero, Maalako hori izango da autoek herriko alde zaharrera sartzeko izango duten bide nagusia.

■ Bakearen alde

San Juan parrokiak antolatuta, bakearen gaineko jardunaldiak egin dituzte oraingo astean abadetxean. Emilio Perez, Aramaioko parrokoa, izan da jardunaldion zuzendaria. Lau hitzaldi izan dira, eta jakina, guztietan bakea izan da hizpide; eta bukatzeko, gaur Gurutze Bide berezia egitekotan ziren, "bizi dugun konpondu ezina eta Kalbarioa gogoan hartuta". Bestalde, Uribarriko parrokiaren ere bakearen gaineko topaketak egin dira hango abadetxean. *Guztion artean pakea guztion alde* izenburuarekin, oraingo astean hasi eta bukatu dira topaketak.

■ Zerrendak ikusgai

Datorren maiatzaren 13ko hauteskundeetan erabiliko diren herritarren zerrendak (errola) asteleheneretik daude ikusgai udaletxepean, eta datorren apirilaren 2a arte (astelehena) hantxe egongo dira, 09:00etatik 21:00etara. Lehenago agertu arren, egiaztatu egin behar da ea norberaren izena zerrendan agertzen den edo ez.

Erreklamazioak udaleko idazkari-tzako bulegoetan egin daitezke, 10:30etik 12:30etara eta 15:30etik 18:00etara. Egubakoitzean, berriz, 10:30etik 12:30era.



UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili
Martxa eta estilo
handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

Urte oparoa ARKOrendako

Arrasate Komunikabideak elkarteak 2000ko batzar orokorra egin zuen atzo Saiolanen, eta, besteak beste, pasa den urteko balorazioa egin zuten, ARKOko bazkideen aurrean. Agurtzane Gaintzarainek, ARKOko kudeatzaileak, esandakoaren arabera, "urte oparoa izan da, ona. Publizitatearen salmenta asko igo da, eta horren ondorioz, autofinantzaketa egokia izatea lortu dugu. Bestalde, produkzio aldetik ere urte aberatsa izan da, gauza ugari egin dugu. Esaterako, Arrasate Irratia kudeatzeaz gain, 24 ordutik 54 orduko emisioa izatera pasatu gara, jakina, guzti-guztia euskara hutsean".

HOBETZEKO LANEAN

Horrez gain, Arrasate Press

hobetzeko ahalegin berezia egin dela ere gaineratu zuten batzarrean. Besteak beste, euskararen kalitatea zaintzen saiatu dira, eta horretarako, HABErekin eta udal euskaltegiarekin batera plangintza bat egin dute.

ARRASATE TELEBISTA

Gurekin hamar urte igaro ondoren, Goiena Tebistaren baitan barneratu zen. Maiatzean izan zen hori, hortaz, iaz, bost hilabetez izan da geurean, ATB moduan. Edozelan ere, hilabete horietan izandako saio berezien berri ere eman zuten batzarrean.

MERKATARITZA GIDA

Urtetik urtera hobetzen ari den beste produktu bat merkataritza gida da: "Berez, oso harre-ra ona izaten du, baina urtean-



lazko batzar orokorraren irudia.

urtean finkatuz doala igartzen dugu".

Bukatzeko, 2000. urteko berritasunak ere aipatu zituzten batzarrean. Adibidez, bi astetik behin aldizkariarekin

batera kaleratzen den ingurumenaren gaineko sentsibilizazio kanpaina (udalak bultzatutakoa), eta Goiena kooperatibaren sorrerak ekarritako ondorioak.

Zuzendaritza batzorde berria Ibai Arten



Marimar Martin, Olatz Azkarraga eta Kristina Arriaran.

Arrasateko dendarien elkarteak, Ibai Artek, datozen bi urteotan jardungo duen zuzendaritza batzordea aukeratu du: lehendakaria ZR dendako Marimar Martin, lehendakariordea



Titare dendako Olatz Azkarraga eta idazkaria Beinke dendako Kristina Arriaran. Diruzaina, berriz, Txuntxurunberdeko Luis Garmendia da.

Horrez gain, beste bede-



ratzi batzordekide ere badaude: Garagorri, Lilura, Muruamendiaraz, Hemen, Artea, Ehune eta Eya Altzariak.

Zuzendaritza batzordea datozen bi urteotarako da.

Denontzat

Etxebizitzarako eskubidearen alde lanean diharduen Denontzat taldeak hitzaldia egingo du datorren martitzenean. Nekane Jurado izango da hizlaria, Eusko Jaurlaritzako ekonomilaria. Eguenean, ostera, mozioa aurkeztuko dute udalean. Atzo aurkeztekotan ziren, baina osoko bilkura bera ere atzeratu egin da.

Posta bidezko botoa

EA hasi da posta bidezko botoak bideratzen. Interesatuak egoitzara joan beharko dira, astelehenetik eguenera, 19:30etik 21:00etara; nortasun agiriaren fotokopiarekin. Azkenengo eguna maiatzaren 2a da. Argibide gehiago, 943 712788 telefonon.

Hiru gazte atxilotuta, eta protestak herrian

Ertzaintzak hiru gazte atxilotu zituen martitzen goizaldean Arrasaten. Bata Xabier Mondragon, 21 urteko gazte arrasatearra; eta beste biak Arrasaten ikasten diharduten bizkaitarrak: Igor Zearreta zornotzarra eta Alberto Marin bilbotarra.

Ismael Moreno epaileak Epaitegi Nazionalaren izenean agindutako operazioa izan zen, eta atxilotutako gazteei Bizkaian eta Gipuzkoan kale erasoak egitea egotzen die, besteak beste.

Terrorismoaren Kontrako Legea ezarri dietenez, bakar-tuta egon dira.

Atxilotetekin batera, lau etxe miatu zituen polizia: Uribe Auzoan, Erdiko Kalen, San Andresen eta Eguzki Dorrean. Azken horretan Julen Mendizabal gaztea bizi da; izan ere, epailearen autoak esaten duenez, Julen Mendizabal atxilotzeko agindua du Ertzaintzak baita ere.

Hortaz, polizia operazioak zabalik dirau.

MOZIOA ONARTUTA

Bestalde, atxiloteta horiek direla eta, osoko bilkura berezia izan zen eguaztenean Mondragoen, herriko Amnistiaren Aldeko Batzordeek eskatuta.

Osoko bilkura hasi eta berehala, PSE-EEko eta PPko zinegotziek aretoa utzi zuten.



Erdiko Kalen miatutako etxebizitza bat.

Alderdi sozialistako bozemaile Paco Garcíaren esanetan, atxiloteta horiek baino gertaera larriagoak izan dira herrian, eta sekula ez da bilkura bat horrenbesteko premiaz deitu. Hori dela eta, herriko alkateak diskriminatu egiten dituela esan zuen, eta batzarretik alde egitea erabaki zuten zinegotziek. Aretoa herritarrez gainezka zegoen, eta zenbaitzuen irainak entzun zituzten joan aurretik.

Horren ondoren, bi mozioak irakurri ziren: Amnistiaren Aldeko Batzordeek aurkeztutakoa eta EAK aurkeztutako alternatiboa.

Bigarrena ez zen bozkatu ere egin, alternatiboa zelako, eta aurkeztu den lehenengo mozioa, Gestorena, onartu egin zelako. Halaxe dio legeak. EHren aldeko botoekin eta beste alderdien kontrako botoekin onartu zen mozioa.

Atxilotetak zelan izan

ziren kontatzeaz gain, mozio horrek Espainiaren estrategiaren ondorio direla salatu zuen, eta zenbaitzuetan, atxilotutako gazteak larregiko zigorrak jasotzen dituztela, 10 urteko kartzela zigorrak, esaterako. Torturen arriskua ere aipatu zuten. Hori dela eta, zappi puntutan honakoa onartu zuten, besteak beste: atxilotuen baldintzarik gabeko askatasuna eskatzea, atxilotuen egoeraren jarraipena egitea, Xabier Mondragonen senitartekoei elkartasuna adierazi eta atxilotetak sortutako gastuak udalak bere gain hartzea. Horrez gain, euskal gazteriarren lanarekin bat egin zuen udalak, Euskal Herriarendako hitza eta erabakia eskatu zuen, eta egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko dei egin zuen.

Bilkura bukatzean, ikamikak izan ziren zenbait herritarren eta zinegotziren artean.

Errenta aitorpena

Datorren astelehenean zabalduko dute errentaren aitorpena egiteko epea, eta ekainaren 25a arte egin ahal izango da. Hiru modutara aurkez daitezke: mekanizatua (hitzordua telefonoz hartuta, bulegora joanda edo inprimaki barik); telematikoa (Internet bidez, baimendutako profesional eta finantza erakundeen laguntzarekin); disketea (Foru Ogasunak prestatutako programak erabiliz) eta papera (estankon erositako inprimakiekin).

Hezkuntza kritikatu

Debagoieneko zenbait ikas-tetxetako ikasleak kalera irten ziren pasa den eguaztenean, Ikasle Abertzaleak taldeak deituta. Goizean goiz, Arrasateko herriko plazan elkartu ziren, eta gero, hiru hitzaldi izan zituzten. Protesta horren helburua zen gaur egungo hezkuntza sistema kritikatzeko, eta hitzaldietan, besteak beste, pedagogia sistemaren gaineko hausnarketa egin zuten, euskal kirola zelan antolatu ere aztertu zuten ESAITen esku-tik, eta euskal eskola nazionala hizpide izan zuten. Berbaldiez gain, eguerdian manifestazioa egin zuten ikasleek.

Pasa den martxoaren 5ean, insumisioaren maratonia hasi zuten IAK Euskal Herrian. *Insumisioa egungo hezkuntza ereduari.* Horixe da maratoniaren leloa, eta eskualdez eskualde egiten dituzte mobilizazioak. Datorren astean, bailarako beste herri batzuetan egingo dituzte mobilizazioak.

Bi behera, bat gora




Zapatuan bota zituzten Zarugalden erortzeko zorian zeuden bi etxebizitzak. Orain, horiek zeuden lekuan bakarra eraikiko dute. Anboto Inmobiliariak egingo ditu lanak: lau pisuko etxea eraikitzeko asmoa dute, hortaz, guztira, zortzi etxebizitza. Beheko aldean, berriz, dendak, bulegoak eta antzekoak jartzeko aukera izango da.



SAIOA GIMNASIOA

- **Fitness**
- **Muskulazioa**
- **Kirolen araberrako muskulazioa**
(txirrindularitza, futbola, saskibaloia, atletismoa...)
- **Gela kardio-baskularra**
- **Nagusi eta haurrendako aerobika**
- **Step**
- **Dietetika aholkularitza**
- **Prestaketa fisikoa**
- **Mantanimendurako gimnasia**
- **Karate**
- **Defentsa pertsonala**



Zerbitzuak

- **Solarium**
- **Masaia**
- **Estetika**
- **Sauna**

Nobedadeak: spining cardio - combat

Nagusiendako maila fisikoaren egokitzapena


- Maila guztiak
- Prestaketarako gimnasia
- Street-hing
- Gorputza zuzentzeko gimnasia
- Indarberitze muskularra



Kontzeziño kalea (tunelean)
Tel.: 943 79 97 31 ARRASATE

- Prestaketarako gimnasia
- Stretching
- Beste kiroleterako prestaketa
- Kardio-baskular gela
- Muskulazio gela
- Body - buylding
- Fitness
- Aerobic

BETI-ONA GIMNASIOA



GOIZ eta ARRATSALDEZ

- Step
- Ahurrentzako karatea
- Nagusi hasi berriendako karatea
- Win-tchung
- Yoga
- Saloi dantzak
- Sauna
- Estetika gela

HAUEK BAI KARTAZALEAK!

Hor dituzue, bete-betea, Uribarriko erretiratuen etxeko karta lehiaketako txapeldunak eta txapeldunordeak: tutean, Marino eta Agapito; eta Ignacio eta Vidal. Musean, Lorenzo eta Felipe; eta Damaso eta Pedro. Briskan, Irene eta Agustina; eta Vidal eta Lola. Zorionak, guztiei!



TXIMA HORIEK KANPORA!

Udaberrian apainago eta indartsuago luzitzeko, ile apaindegi sesioa egokitu zaie Arbolapetako zuhaitzei. Hantxe jardun zuten langileek, adarrez adar mozten. Ikusmin handia piztu zuen, gainera.



MUSA, LAGUNAK EGITEKO ONA

Eta kartez ari garenez, hona hemen jokalaria amorratu bat: Roman Lopez muslaria. Beasaingo Antzizar tabernan badu lagun talde bat, eta haiei omenalditxo moduan, begira zelako irudia prestatu duen, taberna hartan esekitzeko.



Lotsa-GaBe

Felipe Loza eta Garbi Losadarena

Amaia Antzokian
ANTZERKIA

Apirilaren 1ean, arratsaldeko 19:30ean

Sarrera: 1.000 pezeta
Gazte txartelarekin 800 pezeta



ARRASATEKO UDALA

Kultura Saila

Aerobik
Hastapenerako aerobika
Spinnin
Tonifikazioa




Mantinentua
Luzaketa
Fitness gela
Saloi dantzak
Jazz ikastaroak



UARKAPE, 2-BEHEA. ARRASATE. TEL.: 943 77 20 87. ORDUTEGIA: 07:30 - 22:00

Learn English in Scotland this Summer!!



- "Randolph School of English"
Edinburgo erdi erdian.
- 17 urtetik aurrera.
- Egonaldia bertako familietan.
- Aisialdirako egitaraua.

IDIOMASTER

Ingelesa • Frantsesa • Alemana




*Zatoz eta
informa zaitetz!*

Otalora, 29 - behea • Tel./Faxa: 943 79 07 84 • ARRASATE • e-maila: idiomaster@euskalnet.net



URA, ETA EZ ARDOA!

Martxoaren 9an, udal euskaltegiko ikasle eta irakasleak Barazarko BERTOKO garagardotegira joan ziren, Irlandako urez barruak bustitzera. Ura diogu, ze garagardoa egiteko sekretuetako bat ur mota omen da. Hortaz, badakizue: garagar-ardoari ardoa esan gabe, garagar-ura deitu beharko diogu.



ZORIONAK, JOXE!

Oraingo astean, urteak bete ditu Joxek: laurogei ta piku bete ditu, eta beti bezain osasuntsu eta alai jarraitzen du. Zorionak, Joxe, okindegiko lagunen partetik eta guretik ere!



SAN FERMINAK ALA EZKONTZA?

Eneko ezkontzen dela eta, orain bi zapatu, goizean, etxe aurrean agertu zitzaizkion koardrilakoak, San Ferminetako janzkeraz, musika banda eta guzti. Orozkora joan ziren gero, hango jatetxeko zezen-plazara. Horretarako, jakina, Eneko toreroz jantziarazi zuten.

Oporretan, gorputza

Spinning-a, aero combat-a, cardio combat-a, presoterapia, elektroestimulazioa, stretching-a... Uste zenuen nor bere burua eta gorputza zaintzeak horrelako izen sofistikatuarekin agertuko zitzaigula noizbait? Baina, izen horiek eta beste errazago batzuk aukeratu, guztiek ideia berbera ematen digute aditzera; gizakia bezain zaharra den xede eta irrika, gorpuari kultura egitea, alegia. Eta udan izaten ditu erlijio horrek inoiz baino jainkotiar gehien: udaberriaren, Musakolako kiroldegira joan ohi den jende kopurua %20 igotzen da. Eta ez da gorputzaren tenplu bakarra.

Goizean, gimnasioan ordubete eman dezakegu: pesak jaso, aerobik sesio txoa, muskulu tentsatzeak, gorputzeko atalak mugitzeko eta sasoiaren jartzeko aparailu guztiak probatu, ekoizpen-katetik zuzenean fardeltxora pasa beharko duen fabrika produktua bagina bezala... Hori gustuko ez badugu, ordea, beste aukera modernoagoren bat egin dezakegu.

Izan ere, Arrasaten, behintzat, galdetu ditugun gimnasio arduradun guztiak bat datoz: bai, gorpuari kultura egi-


ten diogu; eta bai, sumatzen da uda badatorrela. Arropa gutxiagorekin, haragi eta koipe handiagoa ikusten diogu geure buruari, eta orduan, askok izutu eta berehala zerbaite egiteko premia sentitzen dute. Baina luzitzeko, sufritu egin behar da.

Dena dela, nor bere burua zaintzea izerdi ur-jauzi amai-gabeekin, aspertze orduarekin eta diziplina zorrotzarekin lotzen dutenak zorioneko daude. Tira, diziplinarena egia da, baina... zaintzea aspergarria dela? Urte batzuetatik hona, ezta gutxiagorik ere.

ONDO PASATZEA

“Lehen, gimnasia joaten zenak bi aukera izaten zituen, oro har: muskulazioa egin edo aerobika egin. Baina, hori bukatu da”, esaten dute Mertzek eta Manolok, Irudi gimnasioko zuzendariek: “Jendeak, gorputza ondo izateaz gain, dibertitu gura du. Eta orain dauden berritasun guztiekin, lortu egiten dute.” Irudikoen esanetan, jende asko joaten da euren gimnasia udaberri partean. Aerobikerako, gehienak emakumezkoak dira; baina, beste modalitateetan, gizonak nahiz emakumeak joaten dira. Adinaren tabua ere bertan behera geratu da: Saioa gimnasia, adibidez, sei urtetik aurrerako jendea joaten da.

Izen bitxiak dituzten arren, ariketa horiek bizi guztian egin izan ditugun ekintzen barietateak dira. Orain, bai Irudin bai eta Saioa gimnasia ere, spinning-a da erakargarria. Kirol mota horrek




aerobika eta bizikleta uzartzen ditu. Desberdintasun nagusia honakoa da: taldeka egiten dela, monitore baten zuzendaritzapean. Monitoreak berak agintzen du zelako azalera zeharkatu behar den: mendiko portua, lautada, hondartza... Oso ariketa nekagarria da, baina baita oso ordain onekoa ere.

Hibridoak txanpinoiak adina irteten dira. Saioa gimnasioko arduradunak, Iñakik, honakoa diosku: “Estatu Batuetako modek asko agintzen dute. Han, adibidez, boladan daude orain aero combat edo cardio combat izenekoak: aerobika eta borroka libre, bat eginda. Hemen ere arrakasta handia du ariketa horrek.”



Spinning-a, edo txirindularitzak aerobikarekin bat egiten duenean.

erakutsi guran



OSOAGOAK

Gorpuzkera hobetu gura dutenek modernotasuna eta barietatea dituzte gustuko. Atzean geratu dira, betiko, pisu jasotzaile amorratuen erreinu ziren gimnasio erdi-hustuen irudiak. Baina onena zera da: sofistikatzearaz gain, ariketa fisikoak geroago eta osoago bilakatu direla: aerobikarekin zangoak lantzen badira gehienbat, gimnasioek pisuak jasotzea gomendatzen dute osagarri moduan, gorputz enborra lantzeko. Euren esanetan, neskak geroago eta gehiago animatzen dira pisuak jasotzera. Baina, aukera klasikoan aldekoak ere asko dira: udal kiroldegiaeren eguneroko erabilera hazi egiten da udaberrian, eta ikasta-

roen eskaria ere bai. Gimnasioa eta muskulazio gela, aerobik eta igeriketa ikastaroetako zerrendak, parte hartzailez betetzen dira.

Asko dira oraindik kiroldegi eta gimnasioetara mirariaren bila hurbiltzen direnak. Baina gimnasioetako arduradunak ados daude honetan: "Gutxien irauten dutenak dira. Emaizta azkarrak, merkeak eta bat-batekoak gura dituzte, eta uda pasatzerakoan, joan egiten dira." Gainera, Saioako arduradunen ustez, "horiek dira zaindu beharrekoak, aurretik sekula ez dutelako ariketarik egin; hortaz, larregi egiten badute, nekearen nekez utziko dute; eta gutxiegi eginenez gero, emaitzarik ez ikusi-

ta, orduan ere utzi egingo dute".


Horregatik izan edo beste edozein arrazoirerengatik izan, kontua da pentsamoldeak aldatu egin direla. Orain, ongizatea osotasun bezala hartzen da: "Argaldu nahian datorren jendeari, bigarren egunera arte bakarrik irauten dio obsesioak. Beste balio batzuk topa-



tzen dituzte gimnasioan: lagunak egin, barre egin, kezkak alde batera utzi... eta dibertitu egiten dira", esaten du Manolok, Irudiko langileak.

ETXEAN ERE BAI

Geure burua edertzeko hamai-ka modu garatu ditugu, eta kultu horren eragina gorputz oso-
ra hedatuz joan da. Gimnasia

«Lehen, gimnasia joaten zenak bi aukera izaten zituen: muskulazioa egin edo aerobika egin. Baina, hori bukatu da»





Behin betiko makillajea udako izarretako bat da, eta akats txikiak estaltzeko balio du.

joatea eta dieta egokia jarraitzea ez dira zelulitisaren aurka borrokatzeko arma bakarrik, ezinbestekoak izanda ere. Arrasateko Lirain zentroan, adibidez, beste modu bat proposatzen dute.

Han gimnasia egiteko aukera ere eskaintzen dute, baina beste estetika metodo batzuetan dira aditu: "Mediku batek dieta ipintzen dio pertsona horri. Gero, ultrasoinuak, zirkulazioa hobetzeko masajea eta zelulitisa murriztu eta muskulua indartzeko kremak ematen dizkiogu", esaten du Mari Carmen Pardok, Liraineko zuzendariak.

Ultrasoinuak, presoterapia, elektroestimulazioa eta

antzeko hitzak erabiltzen dituzte adituek, baina horien azpian dagoen prozesua oso sinplea da: zelulitisari hainbat frontetik eraso egin, zirkulazioan, muskuluan eta azalean eraginez. "Baina, hori bai: beti esaten diegu dieta on bat barik ez dagoela zer egiterik", gaineratzen du Mari Carmenek.

Norberak zeregin handia du: gimnasia joan ezean, etxean bertan zirkulazioa estimulatzeko kremak eta belar sendagarriak egindako osagarri elikagarriak bidaltzen dituzte horrelako estetika zentroetan. Horiekin batera, hainbat motatako masajeak ere jendearen faboritoen artean daude.


GORPUTZ ETA MUSU

Baina, irudi lirainagoa erakustea ez da nahiko. Argaldu ondoren -edo barik-, hondartzarako edo mendirako apainapain egoteak ere ematen dizkigu lanak. Bizi guztiko depilazioa, hau da, argizari bero eta tiratze beldurgarrien bidez egiten zena beste hainbat aukeraren artean bakarra baino ez da orain. Argizari hotza, laserraren bidezko depilazioa edo elektrikoa ditugu hautagai. "Laser bidez egiten dena nahiko lasterra da, eta bospasei urte irauten du. Gero, oso teknika berria denez, ez dakigu oraindik zenbat ile irteten den, edo zein indarrarekin", azaltzen du Liraingo arduradunak.

Laser teknika ez da nahastu behar depilazio elektrikoarekin: hau poroz poro egiten da, mingarri samarra da eta azalera txikietarako erabiltzen da, batik bat, baina hori bai, behin betiko da.

Depilatu ondoren, eguzkitarako gertu dugu gorputza. Gura duenak, berriz, gorputz osoko peelinga egiteko tentazioa ere izan dezake. Metodo horren bidez, zelula zaharrak kentzen dira, eta azala leunago geratzen da. Gehitu horri guztiari dotorezia puntu bat, baduzu aukera eta: alegia, ezpainekin edo begiradarekin konforme ez bazaude, behin betiko makillajeak lagun diezazuke. Hori ere gorputzaren kultuaren burtsan goraldira kotizatzen den balioa da, udan batez ere. Ezpain meheak edo asimetrikoak edertzen ditu teknika horrek, besteak beste.

Nahiz eta ugaldu egin diren gure buruaren onena azalertzeko aukerak, edertasun aditu guztiek aholku bera errepikatzen dute: alde batetik, orekan dago edertasuna, eta osasun barik ez dago edertasunik; eta bestetik, ez dago miraririk. Hortaz, gogoratu zure gorputzak eta osasunak zure arreta osoa merezi dutela, baita irailean ere. ■



Goienaren lehen batzar nagusia bihar



Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartearen lehen batzar nagusia egingo da bihar, zapatua, Euskadiko Kutxak Arrasaten duen egoitza nagusiko aretoan. Bihar, martxoak 31, urtebete beteko da Goienak eratze batzarra egin zuela.

Iaz, bi batzar egin zituen Goienak: martxoaren 31n eratze batzarra eta uztailen batzar berezia, azken hori karguak izendatu eta hainbat betebeharrak egiteko. Bihar, ostera, lehen batzar nagusi arrunta egingo da, eta horrelakoetan izaten diren gaiak landuko ditu: iazko txostena eta diru kontuak, aurtengo gestio plana, bete beharrekoak, eta bakoitzak dakarrena. Elkarrekin sortzaileek, hau da, bailarako euskara elkarrekin, lehen aldiz izango dituzte alboan bazkide laguntzaileak eta lan-bazkideak.

Aurten, martxoan, bi hitzarmen sinatu ditu Goienak. Batek, martxoaren lehen, Goienak eta bailarako euskara elkarteek hitzarmena sinatu zuten Bergaran, herri komunikabideen produktzioa Goienaren esku uzteko. Bestetik, martxoaren 15ean, Goiena egitasmoari baietza eman dioten

eskualdeko udalek eta Goienak beste hitzarmen bat sinatu zuten Aramaion. Bergara, Oñati eta Elgetako udalek izan ezik, beste sei udalek sinatu zuten hitzarmena.

Biharko batzar nagusia 09:00etan hasiko da. Aurkezpenaren ondoren, aurreko urteko jardueraren eta diru kontuen berri emango da bideo baten bitartez. Jarraian, galde-erantzunen tarte izango da, eta ondoren, bozketa. 10:00etan, aurtengo gestio plana aurkeztuko da eta galde-erantzunendako tartearen ostean, bozketa egingo da.

AURKEZPEN EKITALDIA

Batzar nagusia 11:00etan amaituko da. Ondoren, Goiena egitasmoa aurkeztuko da prentsaren aurrean, eta 12:00etan, ekitaldi berezia egingo da. Hantxe izango dira Goienako buruak, Debagoieneko alkateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Horiekin batera, bailarako eta bailaraz kanpoko hainbat pertsona ezagun ere, hezkuntza, kultura, enpresa, alderdi politiko eta hedabideetakoak. Ekitaldiaren ostean, lunch-a egingo da.

EMAKUMEON TXOKOA

HITZALDIA

“Berdintasunetik eta zuzentasunetik begiraturik, eskolan eta familian giza harremanak”

Hizlaria: Begoña Salas, hezkidetzan aditua

Noiz: apirilak 3 asteartea

Ordua: arratsaldeko 19:00etan

Non: Monterroneko hitzaldi aretoan

Hitzaldiaren hizkuntza, gaztelera

SASKIBALOI PARTIDA

Arrasateko Kirol Prolektuaren X. Urteurrena dela eta, Parque Comercial Mendibil eta Bacomat Araba

Noiz: apirilak 7 zapatua

Ordua: arratsaldeko 18:00etan

Non: Iturripeko Kiroldegian

ZAHARTZEN IKASIAZ IKASTAROA

Norberaren ballabide eta kemenak ezagutzeko eta autoestima indartzeko

Emalea: Pepa Boj6

Noiz: ostegunetan, apirilak 26an hasita

Ordua: 17:00etatik 19:00etara

EMAKUME KONTSEILUKO BILERA

Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren inguruko galak ditugu hizpide

Noiz: Apirilak 3, asteartea

Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.

Non: Udaletxean

Animatu eta etorri; konbidatuta zaude.

Informazio gehiago, Arrasateko Udaleko Emakume Sailean, deitu 943 79 09 00 edo eta 943 79 41 39 telefonoetan. Gerturatu Arrasateko Udaletxera, herriko plazara.
emakume@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA

Emakume Sails



ARRASATEKO
EMAKUMEEN
KONTSEILUA

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7-1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Golz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugaide, 3-1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezfio, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezfio, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerrias, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 659 58 66 89

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerrias, 56 ☎ 943 79 44 22

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerrias, 56 ☎ 943 79 44 22

Emaitzak

Sailkapenak

A taldea

Txeyenex 7 - Komando Alpargat 4
 Leya 1 - The Pippol 0
 Serengeti 0 - Dribling 15
 AL Ion 7 - Kanp Harrobia 3
 YK Azkena 5 - Lasagabaster 4
 Goma2 4 - Bikain akad 3
 Aurrera Bolie 6 - AC Surcos 5

B taldea

Rayo Aldeano 11 - Sas T 2
 AT Celaya 5 - Abocajarro 3
 Full Duplex 1 - Iriztu 5
 Alai Gozokiak 1 - New Makai 1
 Pepelus.com 2 - Irati STS 10
 Usotz Potroak 4 - Etxerat 4
 Akta 1 - EPEH 0
 KJ Basati 7 - Totx 6
 Kamasutra 1 - Frigel Gol 0

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Txap Dribling	16	13	1	2	89	34	27
Aurrera Bolie	16	11	2	3	66	40	24
YK Azkena	16	11	2	3	65	46	24
Kom Alpargat	16	11	1	4	73	63	23
Bik Akademia	16	9	4	3	95	60	22
AC Surcos	16	9	4	3	76	63	22
Goma2	16	9	3	4	70	51	21
Lasagabaster	16	9	2	5	76	52	20
IKP	15	9	1	5	60	57	19
Leya	15	5	4	6	40	44	14
Serengeti	15	5	3	7	43	77	13
Kanp Harrobia	16	5	1	10	43	75	11
Katxiporra	16	5	1	10	42	60	11
Txeyenex	16	5	0	11	54	71	10
AL Ion	16	3	1	12	61	116	7
Betrayer	15	2	3	10	56	72	7
Makanaki	16	2	1	13	15	21	5
The Pippol	16	0	0	16	7		0

B taldea

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Iriztu	15	13	1	1	76	26	27
Kamasutra	16	10	3	3	82	42	23
AT Celaya	15	11	1	3	70	46	23
Rayo Aldeano	15	10	2	3	95	46	22
Etxerat	15	10	2	3	95	46	22
Irati STS	15	10	1	4	91	54	21
Usotz Potroak	15	8	2	5	67	37	18
AKTA	16	8	1	7	66	56	17
Pepelus.com	15	8	0	7	53	54	16
Frigel Gol	15	7	1	7	57	51	15
DKB Kobate	15	6	3	6	50	50	15
Full Duplex	15	6	1	8	49	54	13
EPEH	15	6	1	8	41	60	13
KJ Basati	15	5	1	9	68	71	11
Txotx	16	3	2	11	37	75	8
SasT	15	3	1	11	29	89	7
Abocajarro	15	3	0	12	49	91	6
Alai Gozokiak	15	2	2	11	37	79	6
New Makai	15	2	1	12	31	109	5

TALDEEI ABISUA

Azkenaldian, sailkatzeko aukerarik ez zutela ikusita, hainbat talde ez dira partiduetara azaldu, eta antolatzaileek seriotasun pixka bat eskatu dute. Dirudienez, batzuei ez zaie axola 8.000 pezetako fidantza galtzea, baina txapelketan izena eman zutenean, arauak errespetatzeko baldintza onartu zuten, eta hortaz, lehen aldia

amaitu arte partidu guztiak jokatu beharko dituzte. Nahiz eta talde batzuek, dagoeneko, sailkatzeko aukerarik ez izan, beste talde askorendako azkenengo txanpako puntuak oso baliagarriak izaten dira, hortaz, ez egin kalerik.

BEHIN-BEHINEKO SAILKAPENA

Goiko aldeko sailkapenak

behin-behinekoak dira. Sailkapen horietan, txapelketa guztian izandako zigorrak ez dira azaltzen, eta talde batek baino gehiagok bi puntuko zigorra duenez, kontu izan, jadanik sailkatuta zaudetela uste baduzue.

PARTIDU INTERESGARRIA

Oraingo asteburuan, IKPren eta Lasagabasterren arteko par-

tiduan bigarren aldirako txartela dago jokoan. Lasagabasterrek irabaziko balu, IKP kalean geratuko litzateke, eta alderantziz gertatuz gero, Goma2 taldearen emaitza ere kontuan hartu beharko litzateke. Emozioa azken segundorarte.



Hurrengo partidak / 17. jardunaldia

Martxoak 31, zapatua

Zaldibar

09:50 Rayo Aldeano - Abocajarro
 11:00 Leya - Kanp Harrobia
 12:00 SasT - Iriztu
 13:00 Serengeti - Betrayer
 14:00 Kom Alpargat - Txap Dribling
 15:00 IKP - Lasagabaster
 16:00 Goma2 - Aurrera Bolie
 17:00 AT Celaya - New Makai
 18:00 KJ Basati - Kamasutra
 19:00 Full Duplex - Irati STS

Epaillea

Leya
 Abocajarro
 Kanp Harrobia
 Iriztu
 Betrayer
 Kom Alpargat
 Lasagabaster
 Aurrera Bolie
 AT Celaya
 KJ Basati

Apirilak 1, domeka

Zaldibar


10:50 YK Azkena - AC Surcos
 11:00 Etxerat - Alai Gozokiak
 12:00 Pepelus.com - DKB Kobate

Epaillea

Alai Gozokiak
 YK Azkena
 Etxerat

Atsedena: Txeyenex, AL Ion, Bikain Akademia, Txotx, Usotz Potroak, Akta.

Gimnasia erritmikoa Uarkapen



Zapatuan, Gipuzkoako eskolarteko txapelketako lehen aldia jokatu zen Uarkapen, eta gimnastek alebin, infantil, kadete eta gazte mailetan jardun zuten. Arrasateko San Frantzisko Xabier, San Viator eta Institutuko gimnastek jardun zuten, eta guztira, 10 arrasatear izan ziren. Ainhoa Apolaza, Janire Bolinaga, Miren

Bragado, Marta Etxeberria, Maria Etxeberria, Jone Goinakolea, Montze Jimenez, Leire Poyato, Mireia Rodriguez eta Amaia Sanchez gimnastak izan ziren Arrasate eta euren ikastetxeak ordezkatzen, eta emaitza onak lortu zituzten. Zapatu honetan ere, Gimnasia erritmikoaz gozatzeko aukera izango da Uarkapen goizeko

hamarretatik aurrera. Oraingoan B mailako gimnastak arituko dira daukaten abilezia erakusten, eta zortzi arrasatear arituko dira.

Hau gutxi balitz, Andoainen ere beste txapelketa bat izango da zapatuan. Txapelketa honetan Arrasate Dragoi Gimnasia taldeko 18 gimnastak hartuko dute parte.

Gasteizera begira

Dagoeneko, zapatuan jokatuiko duten partiduari begira daude Lander Errastiren mutilak. Aurreko asteburuko ez errepikatzeke, neurriak hartu

beharko ditu entrenatzaileak, Caja Riojak irabazi baino, Kencik galdu zuen-eta partidua. Arrasatearrek 7 jokalarirekin jokatu zuten, lesio uga-



Kenci Arrasateko jokalariaiasteleheneko entrenamenduan.

ri izan dituzte eta. Saillkapenari begira, ezin daiteke esan talde arrasatearrak emaitza onak lortu dituenik. Jokatu dituzten hamasei partiduetik bost irabazi dituzte, eta asteburuari begira, ez da erraza izango Gasteiztik puntuak ekartzea, talde arabarra bigarren postuan dago eta. Gazte mailakoak, aldiz, finago aritu ziren aurreko asteburuan. 23 urte azpikoek norgehiagoka bizia jokatu zuten, eta luzapenean irabazi zuten, hiru puntuko aldearekin. Juniorretan, Zarautzek 79-61 irabazi zien arrasatearrei, eta kadetetan, bi taldeak gailendu ziren: mutilak 45-25 irabazi zuten Andraitz taldearen aurka, eta neskek 65-61, Atletico San Sebastianen aurka.

Zazpigarrena jokatzen



Gaur arratsaldean

Arrasate Hiria Xake

Txapelketako zazpi-

garren jardunaldiak jokatuko dituzte Arrasateko Udaletxean. Arrasatearren artean, Luis Angel Ortega izan da momenturarte onena 3 punturekin, eta sailkapen nagusian 6. postuan dago. Josu Tornay puntu erdira dago, zazpigarren postuan eta Isidro Ruiz eta Jose Manuel Hernando atzeko postuetan daude. Hasiera batetik faborito argia bazen ere, aipagarria da Carlos Navas Bilbotarraren lana. Oraindik ez du partida bat ere galdu, eta sailkapeneko lehen postuan aurkitzen da. Beste 3 jardunaldi geratzen dira, eta oraindik posible da aldaketarik izatea. Hala ere, izerdi ederrak bota beharko dituzte bilbotarrari saria lapurtzeko.

Agur denboraldiari



Arrasateko Errugbi

Taldeak zapatuan

esango dio agur den-

boraldiari. Ezin esan Arrasateko mutilek lan eskasa egin dutenik, saillkapeneko laugarren postuan daude eta. Hala ere, azkeneko partiduetan zailtasun handiak izan dituzte neurketetan ordezko jokalariai izateko, izan ere, lesio ugari izan dituzte, eta ahal izan duten moduan jokatu dituzte neurketa asko. Azken partidua saillkapeneko hirugarrenaren aurka jokatuko dute, Gaztediren aurka. Ikusi egin behar taldeak denboraldia garaipen batekin amaitzen duen. Kadeteek, Atletiko Bera Bera taldearen bisita izango dute domekan.

Bikaina trialsineko azken proba



Domekan, giro bikaina izan zen Udalan.

Giro ezin hobea izan zen domekan Gipuzkoako trialsin txapelketako bosgarren proban. Txapelketako azkena izan zen, eta guztira, 50 lagun izan ziren lau modalitatetan banatuak. Parte hartzaileek, minutu eta erdian, antolatzaileek eraba-

kitako ibilbidea ahalik eta hobetoen bete behar zuten, eta gazte gipuzkoarrek sekulako maila erakutsi zuten. Udalan, domeka goizean Iker Lezeta munduko txapelduna ikusteko aukera ere izan genuen, eta Xabi Kortabarria gazte arra-

satearrak ere maila polita erakutsi zuen: infantiletan bigarren postua lortu zuen, gaztea baina etorkizuna duena. Gazte asko Gasteizko trial eskolan entrenatzen dira, eta askotan, bizikleta utzi eta motoa-reakin jarraitzen dute.

Liderraren bisita



Arrasateko taldeak liderraren bisita izango du zapatu honetan Atxabalpen, eta hil ala biziko partidua ez den arren, etxeko taldeari ongi etorriko zaio liderraren aurka indar-rrak neurtzea. Denboraldi hasieran mailaz igotzea zen arrasatearren helburua, eta badirudi Amaiak Bat taldeak helburu hori lortu dezakeela. Zapatuan beraz, etxeko taldeak benetako maila erakutsi duen taldearen aurka arituko da. Aukera ederra noraino iristen garen, eta datoren denboraldiari begira zer hobetu behar dugun ikusteko. Hala ere, behin baino gehiagotan erakutsi digute etxeko taldeko jokalariek maila altu-

ko taldeen aurka futboleko jokatzeko badakitela, baina beste askotan, maila kaskarrereko taldeek puntuak lapurtu dizkiete. Atxabalpen, ordea, beste neurketa asko izango dira asteburuan, eta aipagarriena domeka arratsaldean Mondrak eta Eibarrek jokatuko dutena. Arrasatearrak lider jarraitzen dute, eta bigarrena hamaika puntura dago. Hasiera baten, etxeko taldeak ez luke inongo arazorik izan beharko Eibarrei irabazteko. Alde batetik, etxekoak sekulako maila erakusten ari dira, bestetik, Eibar taldea hamaugarren postuan dago, eta azkenik, arrasatearrek etxean jokatzeko dute. Nahiko arrazoi irabazteko.

Derbia Iturripen



Aurreko asteburuan Bernardo Balerdiren mutilek 21 eta 17 galdu zuten Tolosa taldearen aurka, eta hori dela eta, gogoz hartuko dute oraingo asteburuko norgehiagoka. Aurreko asteko norgehiagoka oso parekatua izan zen, bi taldeek ezaugarri berdintsuak dituzte eta. kanpoan jokatzeko asko eragin zuen, Tolosako kantxa oso txikia delako. Zapatuan, etxekoek Bergara izango dute aurrez aurre, eta derbi interesgarria ikusteko aukera izango da. Bergararrak errebantxa gogoz etorriko dira, joaneko partiduan arrasatekoek irabazi egin zuten eta. Gogoia izango da, ikusi egin behar joko ere badagoen.

Jokatzekoak

ERRUGBIA

Seniorrak:

Arrasate - Gaztedi
zapatuan, 16:00etan, Gara-
gartzan

Kadeteak:

Arrasate - Atletiko Bera Bera
domekan, 11:00etan, Gara-
gartzan

SASKIBALOIA

Juniorrak:

Kenci Arrasate - Easo Cafes
Aitona
zapatuan, 16:00etan,
Musakolan

Kadete mutilak:

Kenci Arrasate - Cafes Aito-
na Askatuak
zapatuan, 12:15ean, Musa-
kolan

FUTBOLA

Lehen erregionala:

Mondra - Amaiak Bat
zapatuan, 16:30ean, Atxa-
balpen

Ohorezko kadeteak

Mondra - Real Union
zapatuan, 11:15ean, Atxa-
balpen

Bigarren mailako

kadeteak

Arrasate - Orioko
domekan, 11:00etan, Atxa-
balpen

Lehen mailako gazteak

Mondra - Eibartarrak
domekan, 16:30ean.

ESKUBALOIA

Seniorrak

Arrasate - Bergara
zapatuan, 20:00etan,
turripen

RAMON ARANTZABAL (MARGOLARIA)

«Estilo abstraktua eta figuratiboa uztartzen ditut»

Arrasatearra jaiotzez, Bergaran bizi da Ramon Arantzabal. Enpresa bateko merkataritza arloan egiten du lan; baina, ahal duen guztietan, bere benetako zaletasuna jorratzen du: margolaritza. Martxoaren 24tik, lan horren fruitua Donostiako alde zaharreko Colchoneria San Vicente tabernan dago ikusgai.

— Zelan sortu zitzaizun zaletasun hori?

— Txantxa antzera hasi nintzen. Betidanik gustatu izan zait margotzea, baina arkatzez egiten nuen, eta ez nuen neure burua margolari ikusten. Baina, gustura nembilela ikusita, emazteak serioago hartzera animatu ninduen. Gero, Donostian etxea hartu genuen, eta esan zidan paretetan margoak esekitzeko, guztiz estali arte. Orain, ez dago zirrikitu bat bera ere libre!

— Ez da zaila lana eta margoa bateratzea?

— Jeneralean, lanetik irten eta margotu egiten dut. Ordu eta erdi edo bi ordu eman izan ditut pintatzen; hori, etxean nagoenentan, izan ere, lanagatik, irten behar izaten dut. Baina, etxean nagoenean, bai, ahal dudan guztietan margotzen dut.

— Zer teknika erabiltzen duzu?


— Margotzea olioarekin lotzen nuen, baina etxean ez zegoen olioarekin jarduteko adina leku. Horregatik, pastel lapitzak erabiltzen ditut.

— Eta estiloari dagokionez?

— Abstraktua eta figuratiboa uztartzen ditut. Gehien erakartzen nauena abstraktismoa da; baina, lan egiteko dudan moduagatik, biak lotzen dira.

— Zelan daiteke hori?

— Hasterakoan, ez dut egin gura duda-



naren ideia garbirik izaten; hortaz, hasi egiten naiz, eta irudia garbi ikusi arte ez naiz guztiz murgiltzen. Baina batzuetan, hain garbi ikusten dudanez, irudi figuratiboak irtezen zaizkit.

— Koloreak, biziak ala apalak gurago?

— Oso-oso biziak. Horrek kontraesana dirudi, pastel margoak kolore leunekin lotzen direlako; margoak ikusten dituztenek ez dute sinisten pastelez eginda daudenik. Urdina eta hori-laranja dira nire oinarritzko koloreak.

— Eta inspirazioa non bilatzen duzu?

— Ez dago inspiraziorik, nire kasuan, behintzat. Nahiko nuke, bai, lanaren ostean etxera joan, hasi eta bost minutuan bukatzea margo bat... baina niri, behintzat, ez zaizkit musak bisitan etortzen.

— Hartuko zenuke margolaritza ofizio moduan?

— Bai, bai; baina, ez buru-belarri sartzeko, egunero zortzi ordu egiteko... baizik eta nire kabuz jarduteko, nire gustura. Ikusten, ikasten eta bidaiatzen saiatuko nintzateke. Baina, ez dut posible ikusten.

aste gazte

■ DIRULAGUNTZAK

• Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat dirulaguntza eman-go ditu:

- musikan, dantzan eta antzerkian espezializazio ikasketak egiteko. Epea: maiatzak 15.

- ikus-arteetako eta literatura sorkuntza arloetako bekak eta sustapen laguntzak. Epea: maiatzak 15.

- Nikanor Zabaleta musika bekak. Epea: maiatzak 15.

■ LANA

• Nafarroako gobernurako irakasleak behar dira, heziketa fisikoa, ingelesa, musika, haur hezkuntza, pedagogia eta filologia espezialitateetako tokiak betetzeko. Epea: apirilak 2.

• Irungo Udalerako gizarte laguntzailea behar da. Epea: EAOen argitaratu zain.

• Eskoriatzako Udalak hainbat postu bete nahi ditu: kirol instalazioetako atezaina, bi peoi eta administrari harreragilea. Epea: EAOen argitaratu zain.

■ AUZOLANDEGIAK

• Eusko Jaurlaritzak Euskal Herrian, Espainiako Estatuan edo atzerrian egonaldiak egiteko aukera ematen dizu, udan lan eginez, beste esperientzia batzuk bizitzeko aukera. Epea: apirilak 6.

■ UDALEKUAK

• Foru Aldundiaren eskutik, 7-13 urte arteko programa: aisialdia, kirola, ingelesa, bertsolaritza eta hainbat tailer egiteko aukera. Epea: apirilak 2.

• Euskal udalekuak: Abai-gar, Bernedo, Goñi edo Urdiroten egonaldiak egiteko aukera. Epea: apirilak 20.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

«Lan egiteko moduagatik, bi estiloak lotzen ditut»

Martitzenean etorriko da Korrika

Oraingo martitzenean iritsiko da Arrasatera XII. Korrika, euskararen aldeko AEKren ekimena. 01:30ak aldera iritsiko da Elorregiko bidegurutzera; hantxe izango dira herritar asko eta asko, AEK eskaltegiaren aurreikuspenen arabera: "Aurreko aldian, 05:00etan iritsita, izugarrizko parte hartzea izan bazen, aurtan, 01:30ean izanik, jende gehiago espero dugu", diote Arrasateko arduradunek.

GLOBALIZAZIOARI EZ

Aurtan, Korrikak badu mezu berezi bat: *Mundu bat euskarara bildu* lelopean, globalizazioaren aurkako mezua igorri gura da. "Hizkuntza eta kultura guztien iraupena aldarrikatu gura da; eta Korrikak euskara eta euskal kultura zabal-tzen lagundu behar duen alde-



Herritar eta erakunde askoren parte hartzea espero dute antolatzaileek.

rik, euskarari eskubide guztiak bermatzea eskatzen dugu, euskal lurralde osoan ofiziala izan dadila", dio Erdu-AEK-k.

AUKERA ZABALA

Martxoaren 31tik apirilaren 2ra, hainbat ekintza izango dira. Bereziki, bertsolaritzaren

kultura ekarpena omendu gura da, eta Lazkanorekin eta Mañu-kortarekin afaria egingo da astelehenean.

Sexuaz berbetan, "Lotsa-Gabe"



Vaiven taldeko antzezleak.

Sexu heziketaren gaineko gida, gazteendako eta guraso modernoendako. Horrela

aurkezten du Vaiven taldeak domekan, Amaia antzokian, antzeztuko duen lana:

Lotsa-Gabe. Sarrerak 1.000 pezetan salduko dira; 800, gazte txartelarekin.

KEZKAK, GALDERAK...

Garrantzitsua da zakilaren neurria? Homosexuala naitzela uste dut, zer egingo dut? Zelan egiten da amodioa? Horiek eta beste hamaika kezka eta galdera mahairatuko dituzte bost neska-mutilek, ikusleekin batera erantzuteko. Oro har, sexualitatea ardatz duen komedia da *Lotsa-Gabe*, Vaiven taldearen hirugarren ekoizpena.

Ikusle guztiendako aproposa izango da hori; martxoaren 30ean eta apirilaren 2an, ordea, Almeneko, Institutuko, San Viatorreko eta Lanbide Has-tapeneko ikasleek emanaldi bereziak izango dituzte.

Haragi Gordina, Kultur Errotaren eskutik



Topaguneak, euskara elkarteak biltzen dituen erakundeak, abian jarri du berriro Kultur Errota egitasmoa, eta martxoaren 31n, Haragi Gordina musika taldea ekarriko du Arrasatera. 22:30ean egingo dute emanaldia, Amaia antzokiko sarreran. Taberna ere presta-

tuko dute antolatzaileek, AEDk eta AEK-k, leku berean. Sarre-rak 300 pezetan salduko dira.

FOLKA, ROCKA, RUNBA...

Desagertutako Mal de Ojo taldearen oinordekoa da Haragi Gordina. Haien estilo antze-

koa lantzen dute, folka, rocka, rumba eta bestelako tradizioak nahastuz; baina, Haragi Gordinak euskara hutsean abesten du, aurreko taldeak ez bezala.

Diapositiba emanaldia eta bestelako ezustek ere eskainiko ditu Haragi Gordinak.

Zeruko ekilibristak



Hiru egunez, Mondragoen sekulako ikuskizunaz gozatzeko aukera paregabea izango dugu. Bordinis izeneko taldeak, ia zeruraino igo, eta kable sinple baten gainean, oreka ariketa harrigarriak egingo dituzte. Laubide plazan izango dira emanaldiak, gaur hasita, guztira hiru, 20:30etik aurrera. Bordinis taldea Alemaniatik dator. Lehendik ere izanak dira Euskal Herrian, Bilbon eta Eibarren hain justu, baina, inoiz ez Mondragoen. Sei kide dira eta urte asko daramatzate orekari moduan.

XIV. Arrasate Lehiaketetako finalistak

Hona hemen AEDk antolatutako lehiaketen finalistak:

IPIUNA

Jone Sagasta, Maria Amutxastegi, Hasier Eraña, Ainhoa Arana, Beñat Zamalloa, Unai Bordes, Jon Aiastui eta Iraitx Agirre.

POESIA

Miren Arrieta, Markel Baltzategi, Oihan Zubizarreta, Idurre Osa, Maider Osa, Mikel Etxaburu eta Manex Agirre.

BERTSOPAPERAK

Maitane Mazmela, Maddalen Akizu, Ibai Guridi, Gaizka

Badiola, Jokin Labayen, Maider Osa eta Oskar Elizburu.

KOMIKIA

Maite Isasa, Amaia Inurria, Marta Calderón, Asier Gallastegi, Alain Briz, Ander Trojaola, Lander Errasti, Asier Calero, Taida Albariño, Hibai

Garai eta Mikel Arroiabe.

IRRATI ERREPORTAJEAK:

Idurre Gaztañaga eta Zuriñe Lasa.

Apirilaren 5ean jakingo da zeintzuk irabazi duten. Zorte on guztioi!

DEKORAZIOA

Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCKo leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

**Gambrinus
garagardotegia**

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak


Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Zein antisorgailu erabili eta zelan?

Igo Autobusera eguenean, 10:30ean



Biharamuneko pilula dela eta, azkenaldian polemika sortu da. Koito ondorengo pilula merkaturatzea baimendu berri du Espainia-ko Sendagai Agentziak; dena dela, hilabete erdi inguru igaroko da pilula botiketan salgai jartzen dutenerako. Gai hori abiapuntu hartuta, antisorgailuen gaineko informazioaren bila joango gara Sexologia zerbitzura. Maitenak eta Anak zein antisorgailu mota dauden, bakoitzak dituen ezaugarriak ... kontatuko dizkigute. Zuk ere zalantzak argitu gura badituzu, galdetu beldur barik, 943-71.17.31 zenbakian. Apirilaren 5ean, eguena, 10:30ean.

Udaberriko moda



Udaberriari sartu gara, eta Meritxell Serrato diseinatzaile atxabaltarrak udaberriari zein kolore eta arropa eroango diren kontatuko digu; Meritxellek arropak diseinatzeko dituen zelaioak erabiltzen dituen ere azalduko digu. Gainera, Georgio Armaniren erakusketa zabaldu dutela aprobetxatuz, Armaniren estiloa zer iruditzen zaion galdetuko diogu diseinatzaile atxabaltarrari. Apirilaren 2an, astelehena, 11:30ean.

berba. Baina, guk ere osteratxo egingo dugu Alakanteko Denia herrian, eta hantxe lan egiten duen euskaldun batekin berba egingo dugu.

Aste Santua

Aste Santutan batzuk herrian geratuko dira, baina beste lagun asko, berriz, kanpora joango dira. Herrian geratzen direnekin harremanetan jarriko gara, eta baita kanpora oporetara joango direnekin ere. Aste Santua ulertzeko eta bizitzeko aukerak izango ditugu hizpide astelehenean, 10:15etik aurrera. Besteak beste, Garbiñe Etxagibeekin egingo dugu

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Apirilaren 7an: **Ignite, Snfu, Deviates,**
Venerea, Power House (sarrera 1)

Egun hauetarako **SARRERAK**
zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren
egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Zein Kontzertu?

Bidali gurea: Arrasate Press, Otalora 31
edo deitu Arrasate Irratira: **943 71 17 31.**

Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak



- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabaldua. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.
09:55 Eguneko hitzorduak.
10:00 Igo autobusera I.
11:00 Albistegia.
11:15 Igo autobusera II.
12:30 Agenda, eskelak...
12:45 Albistegi nagusia.
14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
21:00 Draxtor.
22:00 In Session.

MARTITZENEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
21:00 Jakidiplost.

EGUAZTENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
21:00 KK2A.

EGUENEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
21:00 Arakutzen.

EGUBAKOITZEAN

- 20:00 Planing Prest.
21:00 Kale Doinuak.

ZAPATUAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
11:00 Musika klasikoa.
12:00 Bi zoro ta zu.

**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99



San Josepe aldera joko dugu oraingo asteko argazki zaharren bitartez. 1958. urte ingurukoa da, eta San Josepeko harrobia lanean hasiberri zegoen; ikusten den moduan, oraindik inguru

guztia jan barik zegoen.

Hortxe ikusten da, adibidez, harrobiaren ondoan, San Josepeko ermita, gaur egun ez dagoena. Beheko aldean, osterara, ikusten den eraikina Polmetasa lantegia da, oraindik egin barikoa; eta haren alda-

menean dagoen ingeniarien etxea ere orduantxe ziharduten eraikitzen, baita San Josepeko etxeak ere (oinarria, behintzat, ikusten da).

Pareko zelai zabalean, berriz, gauregun, San Andresko etxeak daude. Argazkitik

ezkerrerantz hasita zeuden eraikitzen, baina ikusten den moduan, oraindik asko zegoen egiteko.

Argazkia: Laso
Berriemailea: A. Arregi



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



KIROL GUZTIAK AUKE(R)AN

- Mantenimendurako gimnasia
- 3. adineko gimnasia
- Gutxitu psikikoentzat gimnasia
- Iharduera fisiko-terapeutikoa
- Igeriketa
- Igeriketa egokitua
- Aerobic
- Fitness
- Muskulazio gela



Kirola zure aukera



ARRASATEKO UDALA

AUKEA ■
Kirol Erakundea ■
■



NEREA

*Udaberrian,
kolore eta estilo
berriak*

Erdiko kale, 28
ARRASATE
Tel.: 943 79 13 43



Almera
Tino



ALMERA TINO. GERTUKOEK BANATZEN ERAKUTSI DIZUTE. ORAIN ESKATU EGITEN DIZUTE.

ZURETZAT GAUZAK ALDATU EGIN DIRA. DAGOENEOK EZ ZAUDE BAKARRIK. ERANTZUNKIZUNAK DITUZU BAINA HORREGATIK EZ DIOZU MOTOR HANDI BAT DUEN AUTO BATI UKO EGINGO. GERTUKOENTZAT ERE AUTO HANDI BAT BEHAR DU IZAN. ZURE FAMILIAKO BAKOITZA GARRANTZITSUA SENTIARAZIKO DUEN AUTO BAT. MARRAZTEKO EDO IRAKURTZEKO BALIO DUTEN MAHAI TOLESKORRAK, PANPINAK, MAPAK, LIBURUAK, POLTSAK EDOTA

JOKUAK GORDETZEKO MILA TXOKO, MUNDU ZABALA MIRESTEN ERAKUTSIKO DIZKIGUTEN LEHIO HANDIAK. ZUK EMATEN DIEZUN SEGURTASUNA EMATEN DUEN AUTOA. ZEUK EMATEN DIEZUN GARANTIA BERDINAREKIN. BERAIENTZAT NAHI DUZUN EROSOTASUNA LORTZEN LAGUNTZEN DUEN AUTOA... HORRELAKOA DA NISSAN ALMERA TINOA. GEHIEN MAITE DITUZUNEKIN ETA GEHIEN MAITE ZAITUZTENEKIN BIZITZEKO ETA GOZATZEKO AUTOA.

ALMERA TINO	Prezioa
1.8 COMFORT	2.634.000 pta.
2.2 Di COMFORT	2.834.000 pta.
2.0 AMBIENCE Automatikoa CVT	3.204.000 pta.



Almera
gama
zabala...



SEE THE CHANGE

5 URTEKO
BERMEA
KM MUGARIK GABE

ALMERA 3/5 ate 1.970.000 pezetatik aurrera*
ALMERA Sedan 2.092.000 pezetatik aurrera*

*Jendearentzako prezio gomendatua (BEZ, matrikulazio-zerga, garraioa eta Nissan asistancia barne eta 5 urteko bermea kilometro mugarik gabe), barne. Penintsularako eta Baileareetarako baliagarria.



ALDIBI AUTOAK, S.A.

ARRASATE-BERGARA-ELGOIBAR

Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. Faxa. 943 79 65 65.

aldibi@nortekar.com



Nortekar